

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

8/2009 E Ebazpena

11/2008 espedientea.

Gasteizen, 2009ko apirilaren 3an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador batzordekideek osaturikoak, hau

ERABAKI DU

Estatuko Administrazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren kontra aurkeztu duen auziaren gainean, hau da, administrazio horietan lehenengoak bigarrenari (Erakundea) sozietateak (IFK: ANNNNNNN) Hidrokarburoei buruzko Legearen kuotan egindako kenkari jakin batzuen zati bat itzul diezaion eskatu diola-eta sortu den auziaren gainean. Izan ere, Arbitraje Batzordean izapidetu da auzi hori, 11/2008 zenbakiko espedientean.

I. AURREKARIAK

1. Auzia Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziak (AEAT) aurkeztu zuen, 2007ko azaroaren 27ko idazkiaren bidez, eta 2008ko apirilaren 4an sartu zen Arbitraje Batzorde honen sarrera erregistroan. Hona hemen, laburbilduta, idazki horretan azaldutako auziaren aurrekariak:

(Erakundea)k (aurrerantzean (Erakundea)) hala Estatuko Administrazioari nola

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

lurralde historikoetako administrazioei eta Nafarroako Foru Komunitateari aurkeztu eta ordaindu izan dizkie lurralde bakoitzean sortutako Hidrokarburoen gaineko Zergaren aitortpen-likidazioak.

2007ko martxoaren 28an, AEATEko Ikuskaritzak eta (Erakundea)k bi akta izenpetu zituzten, eta horien bidez onespena eman zioten Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2003 eta 2004. ekitaldietako likidazioari. Aurkezpen idazkiari erantsi zaizkio akta horien kopiak. Ikuskatze lanen helburua hau da: “Egiaztatzea ondo ote dauden enpresak bioetanola dela-eta 564 autolikidazio ereduetan egindako kenkariak, hau da, Hidrokarburoen Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziaren sarrerari buruzkoetan egindakoak, [Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 50.1. artikuluko 1. Tarifako] 1.2.2 epigrafeak berunik gabeko gasolinei buruz dioena kontuan hartuta”.

Ikuskaritzaren akta horietan adierazten denez, (2. Erakundea)k, (3. Erakundea)k eta (4. erakundea)k Iberiar Penintsulan dituzten petrolio findegia Zerga Bereziei buruzko 38/1992 Legeak (ZBL) 51.3 a) artikuluan xedatzen duen salbuespenari lotu zitzaizkion ekitaldi horietan (2003 eta 2004). Ekitaldi horietan indarrean zegoen testuaren arabera (abenduaren 30eko 53/2002 Legeak 7. artikuluko 6. eta 7. idatz zatietan ezarritakoa), salbuespen hori nekazaritzako produktuetatik edo NC 2207.20 kodean zehaztutako landare jatorrikoetatik (bioetanola) abiatuta ekoiztutako alkohol etilikoa fabrikatu edo inportatuz gero zen aplikatzekoa, hala bere hartan erabili nola kimikoki eraldatu ondoren erabili, erregaitarako izanez gero, zuzenean edo ohiko erregaiekin nahasita, gutxiago kutsatzen duten produktuen garapen teknologikorako proiektu aitzindarien eremuan.

Aurkeztutako idatzian, aktetan erabilitako ia hitz berberekin azaltzen da salbuespenaren funtzionamendua: Petrolio findegiek etanol ia desnaturalizatu jasotzen dute, salbuespen araubidean; ondoren, ETBE (Etil Tertio Butil Eter)

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

bihurtzen dute, eta 95 oktanoko berunik gabeko gasolinari eransten diote; gasolina hori ZBLaren 50. artikuluko 1.2.2 epigrafeko zergarako ezarritako tasarekin kargatua dago; izan ere, (Erakundea)ren zerga gordailutik ateratzean sortzen da karga hori. Findegietako ikuskatzaileek ikusonetsitako etanolaren hartze agiriak (Erakundea)ri igortzen zaizkio, enpresa horrek, zergaren subjektu pasiboa den aldetik, 95 oktanoko berunik gabeko gasolinak duen etanol bolumenari dagozkion kuotak ken ditzan 564 ereduan. Hala, eskubidearen titularrei itzultzen zaizkie kuota horiek.

Bestalde, aktetan adierazten da 2003ko eta 2004ko ekitaldietan (Erakundea)k osorik aplikatu zuela kenkaria lurralde erkidean ordaindutako kuotetan, eta, aldiz, ez zuela kontzeptu horren gaineko ezein partidarik murriztu Arabako eta Bizkaiko foru aldundietan eta Nafarroan aitortu eta ordaindutakoetan. Hori ikusirik, aktuarioak uste du foru administrazioek Estatuko Ogasunari diru kopuru batzuk zorduntzen dizkiotela, eta honela erabakitzen ditu horiei dagozkien zenbatekoak: salbuespena aplikatuz egindako kenkarien guztizko baturari lurralde bakoitzeko zerga gordailuetan izandako irteeren ehunekoa aplikatzen die, eta ehuneko hori zehazteko, guztira ZBLaren 1.2.2 epigrafean sailkatutako 95 oktanoko berunik gabeko gasolinaren zerga duten zenbat irteera izan diren hartzen du kontuan. Kalkulu horietan oinarritzen diren datuak aktei erantsitako tauletan bildu dira, eta, Ikuskaritzak horietatik ondorio ateratzen duenez, Bizkaiko Foru Ogasunak 2.946.854,21 euro zor dizkio Estatukoari 2003ko ekitaldiari dagozkion kontuetatik, eta 3.402.632,17 euro 2004ko ekitaldiari dagozkionetatik.

Aktetan onartzen da Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiko Zerbitzu Juridikoak txosten batean proposatzen duen egitateen sailkapena. Horren arabera, (Erakundea)k akats bat egin zuen inplikaturako administrazioei egoztekoa zaien emaitzaren aitorpenean, baina horrek ez du eragozten Estatuko Administrazioari egindako ordainketak ondorioak izatea eta hura zerga

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

zorretik libratzea. Ondorioz, honela kalifikatzen du akta: “Zerga zorrik ez dela aurkitu eta subjektu pasiboaren zerga egoera erregularizatu dela adierazteko akta”. Akta mota hori orduan indarrean zegoen apirilaren 25eko 939/1086 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zergak Ikuskatzeko Araudi Orokorrak jasotzen du, 53. artikuluan.

2. Gatazkaren aurkezpen idazkian azaltzen diren aurrekarien laburpenarekin jarraituz, Ikuskaritzak aktak egin ondoren modu honetan jardun zen:

- 2007ko apirilaren 30ean, AEATEk Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritza Bereziak bi eskaera bidali zizkion Bizkaiko Foru Aldundiari, aurreko aurrekarian adierazitako zenbatekoak itzul ziezazkiola eskatzeko. Eskaera horietan, hauxe adierazi zuen: “Bi administrazioek eskudun ez den administrazioan izaten diren sarreren inguruan izenpetutako akordioetako 5.2.a idatz zatia jarraiki proposatu dugu prozedura hastea, uste baitugu Estatuko Administrazio hau dela sarrera horren hartzekoduna”.
- 2007ko irailaren 28an, AEATEk idazki bat igorri zion Bizkaiko Foru Aldundiari (aurkezpen idazkiari erantsitako 5. dokumentua), eta hor alegatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak ez zegokion diru sarrera bat izan zuela, salbuespena oker egoztearen ondorioz. Gero, honako hau gaineratzen du: “Kontrakoa adierazteak esan nahiko luke onartzen dela Itunaren eta zerga bereziei buruzko araudiaren arteko lotuneak oker aplikatu direla, eta salbuespena edozein lurraldetan —erkidean edo foru lurraldeetan— libreki aplikatzen utziko litzaioke enpresari; hori hala egitera, ordea, ez litzateke beteko Itunaren eta adierazitako zergaren arteko lotuneei buruzko araudia, eta zergabilketan murrizketak izango lituzke eragindako administrazioak”.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiari ohartarazten dio AEATEkin eztabaidan jarraitzen badu Arbitraje Batzordean aurkeztuko duela auzia, “2003ko eta

Expte	Resolución		Administraciones afectadas		Concepto
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

2004ko ekitaldietan (Erakundea)k ETBE eraldaketa prozesuan berunik gabeko gasolinei bioetanola eransteagatik Hidrokarburoen gaineko Zerga Bereziaren salbuespena aplikatzean egindako banaketa dela-eta” sortutakoa.

3. Aurkezpen idazkiak honako hau dio abenduaren 28ko 2007/1760 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiak (EIABA) [1. idatz zatiko] 13. artikuluan ezartzen duen hilabeteko epea igaro dela eta: “Eta inon agertzen ez denez Bizkaiko Foru Aldundiak lehenago adierazitako errekerimendu hori izan duenik... ulertu behar da Administrazio horrek eskudun dela berresten duela”. Ondorioz, dio, EIABAK aipatutako artikulua horretan [2. idatz zatian] xedatzen duen hilabeteko epearen barruan aurkeztu du idazki hori.

Aurkezpen idazkian, egoki iritzitako zuzenbideko oinarriak azaldu eta gero, honako hau eskatzen dio Arbitraje Batzordeari, gaiaren funtsaren inguruan: “Ebatz dezala berau baiestea, eta babes dezala eta, ondorioz, jo dezala bidezkotzat Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzea 2003ko eta 2004ko ekitaldietako funtsak itzultzeko eskatu dizkion zenbatekoak, 2.946.854 euro eta 3.402.632,17 euro hurrenez hurren. Kontuan izan behar da, hala ere, zuzendu egin dela bi zenbateko horietan lehena, AEATEk 2008ko urriaren 28ko idazkian adierazi bezala. Horri buruz aurrekari hauetako 9. idatz zatian jardungo dugu.

4. 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Arbitraje Batzordeak auzia izapidetzeko onartzea erabaki zuen, eta Bizkaiko Foru Aldundiari planteamendu horren berri ematea; horrez gain, dei egin zion, alegazioak aurkeztu eta frogak proposa zitzaizkan.
5. Bizkaiko Foru Aldundiak Ogasun zuzendariaren idazki baten bidez aurkeztu zituen alegazioak. 2008ko ekainaren 18koa zen idazki hori, eta egun berean sartu zen Arbitraje Batzorde honetan.

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

Alegazio nagusia da, horren gaineko arrazoibideak hartzen du idazkiaren zatirik handiena, Arbitraje Batzordea ez dela auziaren berri izateko eskuduna. Ondorioz, bere eskaeran dio “eskumenik gabekotzat jotzen duela sortutako auziaren gainean ebazteko, eta eskatzen dio ez dadila sar horretan, auzia Ekonomia Itunean xedatutako organo eta prozeduren bidez bidera dadin”. Modu subsidiarioan, Estatuaren uzia ezesteko eskatzen dio, eta galdatzen dio har ditzala kontuan “11/2008 arbitraje gatazkari buruzko txostena”, alegazio idazkiarekin batera bidalitakoa. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak, 2008ko ekainaren 16an egindako txosten horretan, lehenik eta behin, modu zehatz eta argian azaltzen du zertan datzan sistema, hain zuzen ere Zerga Berezien Araudiak araututakoa 105.5. artikuluan, bioerregaia ekoizteari eta 95 oktanoko berunik gabeko gasolinari eransteari buruzkoan, eta hau ondorioztatzen du: “Ezinezkoa denez establezimendu bakoitzetik kontsumitzeko irteten den nahasketan zenbat bioerregai dagoen jakitea, halakorik badu, ezinezkoa da, halaber, bioerregaiari dagokion Hidrokarburoen gaineko Zerga Berezia non sortzen den erabakitzea”.

Segidan, txosten horretan agerian uzten du 2003ko eta 2004ko ekitaldietan ez dagoela irizpiderik bioerregaiaren kenkaria administrazio interesdunei egozteko, irizpide hori 2007ko uztailaren 30ean ezarri baitzen, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartutako akordioaren bidez. Ondoren, argudiatzen du eztabaidan dagoen kasu honetan ez dela aplikatzekoa Ekonomia Itunaren 33.Bi artikulua.

Azkenik, adierazten du Fabrikazio Zerga Berezetan doitzeko aukera izateak honako hau esan nahi duela: “Edozein dela ere doikuntza horrek eragindako zerga erakundeetan bildutako dirua edo salbuespen aplikagarriak banatzeko irizpidea, aplikazio horren emaitzek behin-behinekoak behar dute izan inplikaturako administrazioen artean bildutako dirua banatzeari dagokionez, eta

Expte	Resolución		Administraciones afectadas		Concepto
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

doikuntzak egin ondoko emaitzekin baizik ez dira izango behin betikoak. Alde horretatik, 2003ko eta 2004ko ekitaldiei dagozkien doikuntzak, bi administrazioen arteko adostasunez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek legez aurreikusitako epeetan Zerga Administrazioaren Agentzia Berezia (*sic*) ordaindu ondoren egin zen behin betiko likidazioa.

6. EIABaren 24. artikuluan xedatutakoa betez (Erakundea)ri, interesduna den aldetik, auziaren planteamenduaren berri eman ostean, prozeduran agertzea eskatu zuen hark, 2008ko urtarrilaren 24ko idazkiaren bidez. Idazki hori 2008ko apirilaren 4an erregistratu zen Arbitraje Batzorde honetan, eta, horri jarraiki, agertutzat jo zen (Erakundea), auzia izapidetzeko onartu eta gero.
7. Alegazioetarako espedientea agerian jarri ostean, (Erakundea)k alegazioak aurkeztu zituen 2008ko urriaren 21eko idazkiaren bidez —urriaren 27an sartu zen sarrera erregistroan—, eta AEATek 2008ko urriaren 28ko idazkiaren bidez —urriaren 29an sartu zen sarrera erregistroan—.
8. (Erakundea)k honako hau adierazi zuen 2008ko urriaren 21eko idazkian: “Administrazioen arteko eztabaida zein moldetakoa den egiaztatu eta gero, hau da, eskumen kontua dela guztiz eta inola ere ez duela ekarriko [(Erakundea)ren] egoerari eragingo dion ondorio juridiko edo ekonomikorik, [(Erakundea)k] egoki jotzen du adieraztea bat egiten duela eztabaidaren baldintzekin, eta soil-soilik berresten du prozeduratik ezin etor daitekeela ezein eragin edo ondorio bere interesen alde edo kaltetan, bere zerga egoera, hemen eztabaidagai dugun horixe, jadanik erregularizatu denez, eta ez dagokiola auzian parte hartzea, ez eta prozeduran sartuta dauden administrazioetako bakoitzak azaldutako iritziaren alde edo kontra dagoen adieraztea ere.
9. AEATek, 2008ko urriaren 28ko bere alegazio idazkian, lehenik eta behin adierazten du 2008ko apirilaren 3an Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiak

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	<i>Administración del Estado</i>	<i>Diputación Foral de Bizkaia</i>	<i>Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes</i>

ebazpen bat eman zuela (Erakundea)ren 2003ko ekitaldiaren gainean 2007ko martxoaren 28an egindako aktari buruz, eta horren bidez akta horretako akatsak zuzendu zituela, alegia, Bizkaiko Foru Aldundiari erreklamatu beharrekoa 2.943.082,12 € zirela, eta ez 2.946.854,21 €. Antzeko ebazpena eman zuen 2004ko ekitaldiari zegokion aktaren inguruan ere, baina hor ez zuen aldatu erreklamaturako zenbatekoa.

Gainera, AEATEk hainbat gogoeta egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioen gainean, eta Arbitraje Batzordeari eskaera berbera eginez amaitzen du idazkia, soilik 2003ko ekitaldirako erreklamaturako zenbatekoa zuzenduta.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Auzi hau garaiz eta forman aurkeztu da. Aurkezpenaren egokitasuna dela eta, aipatzekoa da idazkia, nahiz eta 2007ko azaroaren 27koa izan eta, beraz, EIABAREN 13.2. artikuluan xedatzen den hilabeteko epearen barruan sartu, ez zela Arbitraje Batzorde honen sarrera erregistroan sartu 2008ko apirilaren 4ra arte. Alabaina, bi data horietan lehenengoan ez zegoen oraindik indarrean Batzordearen Araudia, eta Batzordea ere ez zegoen benetan eratua, hain justu ere 2008ko apirilaren 4an gertatu baitzen hori. Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak, irizpide gisa, egun hori hartu du adierazitako arau horretan ezartzen den epea zenbatzen hasteko lehen egun gisa, eta epe hori argiro hartu da kontuan kasu honetan.

a) Arbitraje Batzordearen eskumena

2. Auzi honetan azaldutako kontuen analisiari helduz, ezer baino lehen beharrezkoa da Arabako Foru Aldundiaren alegazioa aztertzea, hau da, Arbitraje Batzordeak ez duela eskumenik auzi horren berri izateko. Foru

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	<i>Administración del Estado</i>	<i>Diputación Foral de Bizkaia</i>	<i>Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes</i>

Aldundiaren iritziz, alegazioaren oinarria da gatazka horrek ez duela lekurik EIABAREN 3. artikuluan zerrendatutako eskumen kasuetako bakar batean ere. Araudi horretan, funtsean, hitz berberekin (ezin liteke bestela izan) adierazten dira Ekonomia Itunak 66. Bat artikuluan organo horri ematen dizkion funtzioak, baina beste eginkizun bat ere ematen dio 64 b) artikuluan: Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordean sortzen diren desadostasunen gainean ebaztekoa.

Hona hemen zer dioen arau horrek:

3. artikulua. Arbitraje Batzordearen eskumenak

Hona hemen Arbitraje Batzordearen eskumenak:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru aldundien artean edo haien eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai tributu itunduen lotura puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteari dagokionez, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zergak administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatzeko eta aplikatzeko orduan Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean sor litezkeen auziak ebaztea.

Bereziki, Ekonomia Itunean bildutako lotura puntuen aplikazioari buruzko kontsultek eraginda, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen aldetik akordio ezagatik ebazteke geratzen diren eztabaidak ebaztea, baldin eta eztabaida horiek ebaztea nagusiki batzorde horri badagokio.

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

c) Zergadunen helbidea dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, gatazka honetako eztabaidak ez du lekurik c) letran zehaztutako eskumenetik aparte, ez eta a) eta b) letretan zehaztutakoetatik aparte ere.

a) letrari dagokionez, Foru Aldundiaren iritziz auzi hau ez delako aurkeztu “lotunea nola aplikatu behar den” argitzeko, hain zuzen ere arrazoi ageriko batengatik, “ezin ager daitekeelako lotunea aplikatzeko moduaren kontra, baldin eta kontra egin ahal izateko funtsezko elementu bat falta bada: Kontra egingo zaion lotunea bera”. Eztabaidari bide emateko lotunea izateko, beharrezkoa litzateke, foru erakundeak adierazten duenez, “eragindako administrazioak, aurrez, bioerregaien salbuespena aplikatzeko moduaren inguruko lotune batean adostea”. Hau da, Aldundiaren iritziz, falta den lotune horrek berariaz zehaztu beharko luke nola banatu adierazitako salbuespena Bizkaiko Lurralde Historikoaren eta Estatuaren artean.

b) letrak ere ez du lekurik gatazka honetan, “batez ere aurreko idatz zatian a) letrari buruz emandako arrazoi berberengatik: Zalantzan ez dago lotuna nola interpretatu eta aplikatu den, baizik eta bete ote daitekeen, Administrazioak ados jarri ondoren, gatazka honetan eskumen banaketari buruzko arauen inguruan sumatu den hutsunea.

Oinarrizko argudioa (lotunerik ez dagoela) indartzeko, Bizkaiko Aldundiak bi gogoeta egiten ditu gehigarri gisa:

1) Estatuko Administrazioak berak aitortu dio (Erakundea)ri, zergadun horri igorritako jakinarazpen batean, ez dagoela banaketa irizpiderik eta beharrezkoa dela lotune batean adostea. Hala ondorioztatzen da AEATEko Aduanen eta Zerga Berezien Departamentuko zuzendariak 2003ko urtarrilaren 30ean

Expte	Resolución		Administraciones afectadas		Concepto
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

(Erakundea)ri bidalitako jakinarazpenetik. Hain zuzen ere, adierazten dio aplikatuz ditzala kenkariak bioerregaiei dagozkien salbuespenen kuotan Estatuko Zerga Administrazioan aurkeztu beharreko aitorten-likidazioetan, “Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko zerga administrazioek salbuespena aplikatzeko prozedurari buruzko akordioa laster sinatuko dutenez”. Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, “hainbat arrazoi tartean direla –garrantzirik gabeak hemen laburtutako auziaren ondorioetarako– akordioaren printzipio batzuk formalizatzeko saioek, zeinak bururatzearen inguruan bai baitziren aldi baterako asmoak, 2007ko uztailera arte ez aurrera egin izana ezin alega daiteke AEATEko ikuskaritza zerbitzuak (Erakundea)ri dagokionez ematen dituzten argudioak juridikoki babesteko tresna gisa”.

2) Foru Aldundiaren iritziz, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari buruzko 2007ko uztailaren 30eko akordioaren artean bioerregaietarako zerga onurak aplikatzeari buruzkoa (hamabosgarrena, akordioetako XIII. Eranskinean garatutakoa) sartu izanak argi frogatzen du ordura arte ez zegoela irizpiderik onura horiek administrazioen artean banatzeko. Foru erakundearen ustez, “aurkeztutako auziaren gainean ebazteko ez da garrantzizkoa azkenean Hidrokarburoen gaineko Zerga ordainarazteko administrazio eskudunen artean izenpetutako akordioan AEATEk aurreko egitate batzuetarako –hau da, 2003ko eta 2004ko ekitaldietarako– aplikatu asmo duen irizpide berbera hartu izana”.

Azkenik, Arbitraje Batzordeak eskumenik ez duela azaltzeko egiten duen arrazoibidea amaitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak dio lotunerik ezean Ituna egokitu behar zela gatazka honen gainean ebazteko, bi administrazioen arteko adostasunez, Ituneko bigarren xedapen gehigarrian xedatzen denari jarraiki. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak da horretarako organo eskuduna, eta harexengana jo behar zen. Itunak 62. artikuluan ematen dizkion eskumenak baliatuz ebatzi ahalko zuen hark eztabaidari buruz, bereziki a) (“Ekonomia Itunaren aldaketak erabakitzea”) eta b) (“Zerga eta finantza gaiei buruz une

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

bakoitzean hartu beharreko erabakiak hartzea, itun honetan ezarritakoa behar bezala aplikatu eta garatu dadin”) letretan ematen dizkion eskumenak baliatuz. Hain zuzen ere, dio Bizkaiko Foru Aldundiak, “ez daukagu zalantzarik egoera horretan zegoela (Ituna garatu beharrean ustez arautu gabe zegoen kasu bati estaldura juridikoa emateko) bioerregaien salbuespenaren aplikazio buruzko kasua...”.

3. Zuzenbideko aurreko oinarrian azaldu dugun Bizkaiko Foru Aldundiaren planteamenduarekin bat, Arbitraje Batzorde hau auziaren berri izateko eskudun izango da, baldin eta auzi hori Itunean jadanik ezarrita dagoen lotune baten aplikazioari buruzkoa bada, edo, bestela, halako lotunerik ez bazegoen eztabaida sorrarazi zuten gertaerak jazo zirenean, Aldundiak dioen bezala.

AEATEk auzi honi buruz Bizkaiko Foru Aldundiak duen iritzia kontrakoa agertu zuen 2008ko urriaren 28ko bere alegazio idazkian: haren ustez, (Erakundea)ri egindako ikuskatze aktetan hartutako irizpidea “ez da beste lotune bat: hala balitz, Ekonomia Itunaren Legea aldatu beharko litzateke; hori baino gehiago, ordea, Itunean jasotzen den modulazio bat da (ILaren 33. artikulua)”.

Ezin etor gaitezke bat Bizkaiko Foru Aldundiak horri buruz duen tesiarekin, funtsezko arrazoi batengatik: hain zuzen ere, AEATEk dioen bezala, gatazka konpontzeko aplikatu behar zen lotune hori bazegoelako eztabaida sorrarazi zuten gertaerak jazo zirenean. Hauxe besterik ez da lotune hori: maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunak 33.Bi artikuluko lehenengo paragrafoan Fabrikazio Zerga Bereziatarako xedatutakoa. Hona hemen zer dioen: “Fabrikazio Zerga Bereziak foru aldundiek eskatuko dituzte, zerga horien sortzapena Euskadin baldin bada”. Horixe da, beraz, eztabaidan aplikatzekoa den araua, eta hori aipatuta betetzat jotzen dugu EIABaren 16.5. artikuluko b) letran xedatzen dena.

Expte	Resolución		Administraciones afectadas		Concepto
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

Hala ulertzeko, nahikoa da kontuan hartzea ezinbestean lotu behar zaizkiola irizpide edo lotune berberari hala salbuespenen aplikazioa nola bere zehaztapenetan salbuespen horiek kontuan hartu behar dituen zerga. Hain zuzen ere, zerga salbuespenak edo arinketak ez dira eragiten dioten zerga gai horretaz aparteko zerbait, arau multzo bereko piezak baizik, eta horiek aplikatzearen ondorioz ateratzen da zerga kuota. AEATEk gatazkari buruzko bere aurkezpen idazkian dioen bezala (3. FD, III), “salbuespena lotuta dago zerga gaia gauzatzeari”. Kontrako iritziak gauza absurdo bat pentsaraziko liguke, hau da, beharrezkoa dela Itunak lotune espezifiko bat izatea zerga itundu bakoitzaren salbuespenetarako, gutxienez teknikoki kuota osoaren partida kengarri gisa jarduten duten horietarako. Tesi hori ezin eutsizkoa dela frogatzeko, aski da ikustea Ekonomia Itunak ez duela lotune espezifikorik ezartzen ezein zerga itundutarako, tesi hori zuzena balitz espero izatekoa zatekeen bezala.

4. Arrazoibidearen puntu honetan, beharrezkoa da gatazka honen xedea ahalik eta zehaztasun handienarekin finkatzea, lehenik eta behin, Arbitraje Batzorde hau eskudun den edo ez erabakitzeke. Hasteko eta behin, baztertu behar dugu xedearen funtsa AEATEk Bizkaiko Foru Aldundiari diru kopuru bat erreklamatu izana denik. Hala balitz, Batzorde hau, argi eta garbi, ez litzateke eskudun izango.

Ondorio berbera aterako genuke baldin eta eztabaidaren xedea (Erakundea)k Estatuko Ogasunari egindako ordainketa baliozkoa den edo ez eta, ondorioz, horrek Hidrokarburoen gaineko Zergaren zorretik libratzen ote duen edo ez argitzea balitz; hain zuzen ere, horri buruzkoa da gatazkaren aurkezpen idazkia, eta gogoeta luze eta zabalak dakartza Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiko Zerbitzu Juridikoak 2007ko otsailaren 28an egindako txostenari buruz. Azalduta dagoen moduan, eztabaidak ez dauka zerikusirik (Erakundea)k egindako ordainketarekin eta horren ondorioekin, eta, beraz, ezta Zergei

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

buruzko Lege Orokorak 62.8. artikuluan xedatzen duen egoerarekin ere (Administrazio batek zerga bat erreklamatzeari, eragiketa horrengatik beragatik beste administrazio bati ordaindu zaionean zerga horren edo horrekin bateragarria den beste baten zorra), zeinari buruz ari baita adierazitako txostena.

Halaber, eztabaidaren funtsa ez da gatazkan dauden bi administrazioetako zein dagoen behartuta Hidrokarburoen gaineko Zerga dela-eta ordaindutako zenbatekoa itzultzera. ZBLaren 52. artikulua ematen du zerga hori dela-eta ordaindutako kuota itzultzeko eskubidea honekin zerikusirik ez duten beste kasu batzuetan, besteak beste kasu honetan: “Gutxiago kutsatzen duten produktuak, zehazki baliabide berriztagarrietatik lortutako erregaiak eta karburanteak, teknologia aldetik garatzeko proiektu aitzindarietan erabiltzen direnean zergari lotutako produktuak”. Nabarmena da ez dela hori hemen aztertutako kasua. Horretarako nahikoa da kontuan hartzea (Erakundea)k ez zuela ezertxo ere ordaindu 95 oktanoko berunik gabeko gasolinarekin nahasitako bioerregaiarengatik; izan ere, oso-osorik kendu zuen erregai horri zegokion zenbatekoa, nahiz eta den-dena —eta hortxe datza gatazka— Estatuko Administrazioari zor zion kuotatik kendu.

Beraz, AEATEk oker egin du bere alegazio idazkian Ekonomia Itunak 33.Bi artikuluko bigarren paragrafoan xedatzen duena argudiotzat hartuta. Hain zuzen ere, arau orokorra ezartzen du paragrafo horretan, eta, horren arabera, “kuota eskuratu duen administrazioaren eginkizuna izango da Fabrikazio Zerga Bereziak itzultzea eskatzen zaizkionean. Aldiz, Bizkaiko Foru Aldundia zuzen aritu da ekainaren 18ko bere alegazio idazkiari erantsitako 2008ko ekainaren 16ko txostenaren 7. puntuan, kasu honetan arau hori ez dela aplikatzekoa esan baitu. Alabaina, ez da hori, zuzenbideko aurreko oinarrian adierazi den bezalaxe, interpretatu eta aplikatzeko modua dela-eta hemen auzitan dagoen Itunaren araua, baizik eta 33.Bi artikuluko bigarren paragrafoa. Horiek hala,

Expte	Resolución		Administraciones afectadas		Concepto
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

eskumena ematen zaio Arbitraje Batzordeari.

Egia da eztabaida sortu duen egoera hori beste modu batera trata zezaketela bi administrazio interesdunek. Esate baterako, AEATEk zehaztugabetzat jo zezakeen (Erakundea)k aurkeztutako Hidrokarburoen gaineko Zergaren autolikidazioa, eta, zergadunaren zerga egoera zuzendu ondoren, erreklama ziezaiokeen ordaindu ez zuen parte hori ordaintzeko. Hori aipatzen du AEATEk berak gatazkaren aurkezpen idazkian (3. aurrekaria), honelaxe baitio zerga zorrik ez dela aurkitu eta subjektu pasiboaren zerga egoera erregularizatu dela adierazteko aktak egin direla eta: “Bistan denez, beste aukera adierazitako diferentziak likidatzea zen, eta subjektu pasiboak foru aldundi bakoitzari zegokiona erreklamatzeari”. Bizkaiko Foru Aldundiak gauza bera egin zezakeen (Erakundea)k bioerregaien salbuespenari zegokion kenkaririk gabe aurkeztu zizkion aitorpenekin. Hala eta guztiz ere, AEATEk ez zuen jarraitu jarduteko ildo horrekin; aitzitik, zergadunak egindako aitorpena eta sarrera ontzat emanda, Bizkaiko Foru Aldundiarekiko finantza harremanen esparruan kokatu zuen kontua, eta, esparru horretan, ezinbestean, Ekonomia Itunaren barruan sartzen da eztabaida. Horixe defendatzen du, hain justu ere, (Erakundea)k aurrekarien 8. idatz zatian aipatutako alegazio idazkian.

Eztabaida salbuespenen finantza kostuaren banaketari buruzko auzi gisa aurkeztuta, dudarik ez da bete-betean sartzen dela Arbitraje Batzorde honek dituen eskumenen esparruan, Ekonomia Itunak 66.Bat artikuluan zehazten duenaren arabera, nahiz iritzi “zerga itunduen lotura puntuen aplikazioa” (a letra) dela eztabaidagaia, nahiz iritzi administrazio interesdunen arteko gatazka bat dela, “banako zerga harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatzeko eta aplikatzeko orduan Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean” (b letra) sortutako auziaren ondorio.

Aurreko gogoeta horien ondorio gisa, gure iritzi, Arbitraje Batzordeak badu

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

gatazka honen berri izateko eskumena.

b) Auziaren funtsa

5. Auzi honen funtsa bitan banantzen da: Kontuan hartuta Ekonomia Itunak 33. artikuluko Bi idatz zatiko lehenengo paragrafoan Fabrikazio Zerga Bereziatarako –horien barruan sartzen da Hidrokarburoen gaineko Zerga– ezartzen duen lotunea, hau da, zerga sortu den lekua,

1) Erabakitzea lotune hori zuzen interpretatuz gero ezinbestekoa ote zen 2003ko eta 2004ko ekitaldietan bioerregaien salbuespena aplikatzearen ondoriozko finantza kostua Estatuako Administrazioaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean banatzea.

2) Erabakitzea egokia ote den banaketa irizpidea zerga sortu den zerga gordailuan 95 oktanoko berunik gabeko gasolinaren zergarekin izan diren irteeren arabera izatea.

6. Ez dirudi zalantzarako bide ematen duenik baiezkoa behar duela izan aurreko galderetako lehenaren erantzunak. Kontrakoa ez litzateke soilik Estatuaren eta lurralde historikoen arteko finantza baliabideak modu bidezkoan banatzearen aurkakoa, hau da, Ituna sorrarazi duen asmo horren aurkakoa, baizik baita haren letraren aurkakoa ere.

Hain zuzen ere, Itunaren 33. Bat artikulua araberak, “zerga bereziak itundutako zergak dira, eta Estatuak une orotan ezarritako arau substantibo eta formal berberei jarraituko diete, zenbait salbuespenekin”. Bada, lurralde historikoetako ogasunek ez balute onartuko bioerregaien salbuespena aplikatzearen ondoriozko kenkaririk, estatukoaz bestelako araudi bat aplikatzen ariko lirateke. Arrazoi eman behar zaio, beraz, AEATi 2008ko urriaren 28ko bere alegazio

Expte	Resolución		Administraciones afectadas		Concepto
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

idazkian egiten duen baieztapen honi dagokionez: “Zalantzarik ez da ILaren guztiz kontrakoa dela zerga itunduak soilik administrazioetako bati egoztea [salbuespena]”.

7. Bizkaiko Foru Aldundiak uste du ezinezkoa dela banaketa aurrera eramatea, administrazioen artean salbuespenaren kostua banatzeko berariazko irizpiderik ez dagoenez. Horri dagokionez, honako hau alegatzen du: “Bioerregaia, araubide etengarria amaitu aurretik, berunik gabeko gasolinarekin nahasten da, eta bioerregai izateari uzten dio; beraz, ezin zehaztu daiteke zenbat bioerregai dagoen (Erakundearen) establezimendu bakoitzetik kontsumitzeko irteten den erregaiaren bolumenean, establezimendua lurralde erkidean egon edo foru lurraldean egon”.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30ean salbuespenaren aplikazioari buruz erabaki bat hartu izanak argi frogatzen du beharrezkoa dela zergak banatzeko edo lotune bat ezartzeko berariazko arau bat izatea. Aldundiak dio erabaki horretan ezarritako irizpidea izan daitezkeenetako bat besterik ez dela. Haren iritziz, ez da garrantzizkoa erabaki horretan hartutako irizpidea AEATEk eztabaida sortzen duten kasuetan aplikatzen duen berbera izatea.

Egia esan, argudio horrek ez du nabarmentzen lotunerik ez dagoela besterik, eta hori baztertu dugu jada Arbitraje Batzordeak auzi honen berri izateko eskumenik ez duela erakusteko froga gisa. Horri dagokionez, gogoratu behar da hala Ituna sorrarazi duten printzipioak nola 33.Bi artikuluan agertzen den zerga ahalmena banatzeko arauak galarazi egiten dutela salbuespenarekin bildutako zergen kostua soil-soilik Estatuko Administrazioari egoztea. Ondorioz, salbuespenaren kostua administrazioen artean banatzea Itunaren oinarriko eskakizuna dela onartzen bada, baieztatu behar da hori betetzea ezin egon daitekeela berariazko banaketa arau bat izatearen mende, betiere hori aurrera

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

eramateko irizpide arrazoizkoago bat erabil badaiteke.

Funtsean, horixe argudiatzen du AEATEk bere alegazioetan hau adierazten duenean: "Zerga bat itundu gisa eratzeak zerga horren osagai guztiei eragiten die, are hobariei, salbuespenei, kenkariei eta zerga horren gainerako osagaiei ere, ILak berak ezartzen dituen modulazioekin eta, halakorik bada, salbuespenekin, eta halako salbuespenik ez du jasotzen ILaren 33. artikulua kasu honetarako". Eta aurrerago dio establezimendu bakoitzetik kontsumitzeko irteten den nahasketan zenbat bioerregai dagoen zehaztea ezinezkoa denez —hala aitortzen du AEATEk— eta horrek, aldi berean, ezinezko egiten duenez Hidrokarburoen gaineko Zerga non sortzen den erabakitzea, horrexegatik dela beharrezkoa inplikaturako administrazio guztiek bidezko irizpide bat ezartzea (dauden zailtasun tekniko eta fisikoak kontuan hartuta), zerga itunduaren izaera errespetatuko duena eta zergadunei segurtasun juridikoa emango diona

Halaber, AEATEk bere alegazio idazkian dio 2001. urtetik hainbatetan izan direla saioak eragindako foru ogasunetara gerturatu eta irizpide batean adosteko, baina AEATEk behin baino gehiagotan proposatu arren urteak behar izan direla akordioa lortzeko, eta "horrek ondorio ekarri du eragindako foru ogasunek zerga gehiago biltzea, bidegabeki eta ILaren kontra aberastea, ILak zergak ordainarazteko eskumenak nola banatzen dituen kontuan hartuta".

8. Bizkaiko Foru Aldundiak Ogasun eta Finantza Sailaren 2008ko ekainaren 16ko txostenaren harira auzi honen gainean bidali zuen alegazio idazkian adierazten du badela doitzeko aukera Fabrikazio Zerga Berezieta. Foru Aldundiak dioenez, "doitzeko aukera bera baden aldetik, edozein dela ere doikuntza horrek eragindako zerga erakundeetan bildutako dirua edo salbuespen aplikagarriak banatzeko irizpidea, doikuntza aplikatzearen ondoriozko emaitzak behin-behinekoak izango dira inplikaturako administrazioen artean bildutako dirua banatzeari dagokionez, eta banaketa ez da behin betikoa izango doikuntza bera

Expte	Resolución		Administraciones afectadas		Concepto
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

aplikatzearen ondoriozko emaitzaren bidez baizik”. Dirudenez, egiten duen arrazoibidea da, nahiz eta ez oso modu garbian azaldu, doikuntza horren bidez konpentsatu zitzaiola Estatuko Administrazioari zergabilketan izan zuen galera, administrazio horri ordaindutako kuotan bioerregaiari dagokion salbuespena oso-osorik kendu zela-eta eragindakoa.

Alabaina, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du bazter uzten Fabrikazio Zerga Bereziei dagokien doikuntzak, BEZarenak bezalaxe, ezin konpentsa ditzakeela zuzenean zergabilketako diferentziak dagokion zergaren gaineko ahalmena banatzen duten administrazioetako baten edo bestearen kaltetan. Doikuntza horien helburua Euskal Autonomia Erkidegoaren kupoa zuzentzea da, kontuan har dadin hala BEZa nola Zerga Bereziek, jatorrian sortu arren, azken kontsumoa dutela helburutzat edo gai kargatutzat, eta, beraz, administrazioetako batek bildutako zerga, neurri batean, bestearen lurraldean bizi diren herritarrek jasaten dutela ekonomikoki. Beste hitz batzuetan esanda, jatorriko zergak helmugako zerga bihurtzea da (termino makroekonomikoetan) zeharkako zergengatiko doikuntzen eginkizuna. Kasurik gehienetan, Estatutik Euskal Autonomia Erkidegora doan finantza fluxu bat da doikuntza; salbuespena, hain zuzen ere, Hidrokarburoen gaineko Zerga da, fluxu negatiboa sortzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoarentzat, maiatzaren 23ko 13/2002 Legeak 15.Bat.c).2 artikuluan xedatzen duen bezala. Izan ere, Lege horren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoak 2002-2006 bosturtekoan zer kupo izango zuen adierazteko metodologia, eta aldi horren barruan sartzen dira gatazka hau sortu duten ekitaldiak.

Hona hemen 2003ko eta 2004ko ekitaldietarako aplikatzekoa den Fabrikazio Zerga Berezien doikuntza kalkulatzeko formula matematikoa, indarrean dagoen Ekonomia Itunaren 54.Bi artikuluan xedatutakoa:

$$RFPV = RRPV + c \cdot RRAD + (c - d) \cdot H$$

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

Formula horren arabera, kasuan kasuko zerga dela-eta Euskal Autonomia Erkidegoan benetan bildutakoari (RRPV) berdintasunaren bigarren parteko beste bi gaien kopurua erantsi behar zaio, dagokion zeinuarekin, hau da:

- Koefiziente (“c”) batekin biderkatu ondoren ateratzen den emaitza —Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek lurralde erkideko biztanleen aldean duten kontsumoa—, eta
- “c” koefizientearen eta d koefizientearen (Euskal Autonomia Erkidegoak lurralde erkidearen aldean duen zergak biltzeko ahalmena) arteko kendura H magnitudeari (eraginkortasun gutxien duen administrazioak izandako zerga-bilketa teorikoa) aplikatu ondoko emaitza

“c” eta “d” koefizienteen balioak, Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokionez, 13/2002 Legeak ezarri zituen, 15.Bat, c) artikuluan. Hauexek dira balio horiek: c = 6,560 eta d = 8,260. Eta, hain zuzen ere, urriaren 25eko 29/2007 Legeak ere balio berberak ezarri ditu 2007-2011 bosturtekorako.

Aipatutako gai horietako lehenengoari adierazitako balioak aplikatuz, adierazpen hau ateratzen da: $6,560 \cdot RRAD$. Gai horri ez dio eragiten AEATEk Hidrokarburoen gaineko Zerga dela-eta bildutako gainerako diruak.

Bigarren gaiari dagokionez, “c – d” kendurak onartzen du “6,560 – 8,260” balioa, hau da, -1,700 balio negatiboa, 13/2002 Legearen 15.Bat, c) artikuluko 2. idatz zatian adierazten den bezala. Aldi berean, H aldagaia, zeinari balio hori aplikatu behar baitzaio doikuntza kalkulatzeko, honela adierazten da (Itunaren 54.Bi artikulua):

Expte	Resolución		Administraciones afectadas		Concepto
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

- RRPV/0,08260, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan izandako benetako zergabilketa erlatiboa zergak biltzeko duen ahalmen erlatiboa baino txikiagoa bada,
-
- RRTC/(1-0,08260), hau da, RRTC/0,91740, kontrako kasuan.

Lehenengo hipotesian, salbuespena ez kentzearen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko zergabilketa handituko balitz, gehitutako euro bakoitzeko $1/0,0826 = 12,11$ euroko igoera izango litzateke H magnitudean. Eta doikuntza $- 0,017 \times 12,11 = - 0,21$ euro izango litzateke euro bakoitzeko, hau da, zenbateko negatiboa.

Bigarren hipotesian, arrazoi berberetatik lurralde erkideko zergabilketa murriztuko balitz, euro bakoitzeko $1/0,9174 = 1,090$ euroko murrizketa izango litzateke H magnitudean, eta hori $- 0,017$ koefizientearekin biderkatuta, doikuntza $0,018$ euro igoko litzateke euro bakoitzeko.

Doikuntzaren gainean bigarren eragin horixe izan zezakeen, gehienez ere, bioerregaiaren salbuespena kentzearen ondorioz AEATEk Hidrokarburoen gaineko Zerga gutxiago bildu izanak. Baina kupoaren eragin murriztaile eta mugatu hori benetan gertatu izan balitz, Bizkaiko Foru Aldundiak ahalegina egin beharko zuen hori frogatzeko, eta ez du halakorik egin. Hori ikusirik, baztertu egin behar dugu adierazitako ekitaldi horietan salbuespena osorik egozteagatik AEATen zergabilketan izandako murrizketa Hidrokarburoen gaineko Zerga Bereziaren doikuntzak konpentsatu zuelako argudioa.

9. AEATEk gatazkaren aurkezpen idazkian argudiatzen duenez, Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30ean emandako akordioa aplikagarri zaie 2003ko eta

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

2004ko ekitaldiei, ekitaldi horietan indarrean zegoen “Ekonomia Ituna eta zerga bereziei buruzko araudia interpretatzen baititu”. Interpretazio hori nabarmentzen du 2008ko urriaren 28ko alegazio idazkian ere. Bizkaiko Foru Aldundiak, bestalde, uste du akordio hori arau berritzailea dela, bere tesiarekin bat eginez, hau da, ez dagoela salbuespenerako lotunerik halakorik ezartzen ez den bitartean, eta lotune horixe ezarri asmo dela akordio horren bidez.

Jakina da interpretazio arauen kategoria lausoa dela, eta ikusten da horren kontra arau horiek ezinbestean dutela berrikuntza elementu bat ordenamendu juridikoan, bestela azalekoak izango bailirateke. Arau bat berariaz interpretaziozkotzat jotzeak esan nahi du atzera eraginarekin aplikatzeko egina dela, ustez interpretatu den araua indarrean sartu zen egunetik aurrerako eraginarekin, hain zuzen. Hori ez da, ordea, Itunaren Batzorde Mistoak hizpide dugun arlo honen gainean hartutako erabakiaren kasua.

Dena dela, auzi honen gainean ebazteko ez da ezinbestean erabaki behar erabakia interpretatzekoa den edo ez. Beraz, soil-soilik adieraziko dugu horrek leku izan dezakeela interpretazio araudiaren kontzeptu zabal batean, eta, edonola ere, zalantzarik gabea dela Ekonomia Itunaren 33. artikulua aplikazioa erraztea dela horren xedea, eta, ondorioz, arau horren mende duela bere eginkizuna.

Gaineratu behar da, Foru Aldundiak azaldu asmo duen bezala, erabaki horrek lotune berriren bat ekarriko balu ezin ezarriko lukeela Batzorde Mistoak, baizik eta ezinbestean onartu beharko litzatekeela, Ituna aldatzeko Legearen bidez.

- Atzerago adierazi dugun bezala (zuzenbideko 20. oinarria), Bizkaiko Foru Aldundiak argudiatzen du Estatuko Administrazioak berak aitortu duela, AEATEko Aduanen eta Zerga Berezien Departamentuko zuzendariak (Erakundea)ri 2003ko urtarrilaren 20an igorritako jakinarazpenaren bidez, ez

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

dagoela banaketa irizpiderik eta beharrezkoa dela lotune batean adostea, eta sozietate horri adierazi ziola aplika zitzala kenkariak bioerregaiei zegozkien salbuespenen kuotan Estatuko Zerga Administrazioan aurkeztu beharreko aitopen-likidazioetan. Alabaina, jakinarazpen horrek batez ere zergadunaren eta AEATen arteko harremanean izan zituen ondorioak (batez ere berau aske uztea zerga arauak hausteagatik erantzukizun orotik), eta hark lotunerik ez izateari buruz adierazitakoak ez ditu indargabetzen zuzenbideko aurreko oinarrietan atera ditugun ondorioak.

11. Bestalde, atzerago adierazi dugu (zuzenbideko 4. oinarria) auzi hau ez dela sortu AEATEk Bizkaiko Foru Aldundiari diru kopuru bat erreklamatu diola eta; izan ere, hala balitz, argi legoke Arbitraje Batzorde honek ez lukeela eskumenik haren berri izateko. Lehen begiratuan, badirudi, hain zuzen ere, asmo horixe duela AEATEk; izan ere, Batzordeari eskatu dio jo dezala “bidezkotzat Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzea funtsak itzultzeko eskatu dizkion zenbatekoak”. Alabaina, beharrezkoa da AEATEk arbitraje organo honetan aurkeztutako alegazioen zentzua kontuan hartuta interpretatzea eskaera hori, agian ez baita oso modu teknikoan adierazi, eta ulertzea Arbitraje Batzorde honi haxe eskatu diola —eta sartzan da bere eskumenen barruan—: adieraz dezala administrazio interesdunen artean banatu behar dela bioerregaiaren salbuespenarekin bildutako zergen kostua, baldin eta lotunerik izango bada Ekonomia Itunaren 33. artikuluan ezarritako Fabrikazio Zerga Bereziatarako, horien artean Hidrokarburoen gaineko Zergarako, eta horretarako banaketa irizpide egokia izan litekeela kontuan hartzea bioerregai duen berunik gabeko zenbat gasolina atera den lurralde bakoitzean dauden zerga gordailuetatik. Ebazpen hau betetzean aurkeztu ahalko dira dagozkion zenbatekoak itzultzeko uziak.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

<i>Expte</i>	<i>Resolución</i>		<i>Administraciones afectadas</i>		<i>Concepto</i>
11/2008	R8/2009	03/04/2009	Administración del Estado	Diputación Foral de Bizkaia	Impuesto sobre Hidrocarburos: Gasto fiscal biocarburantes

Ondoko hau adieraztea:

1º) Ekonomia Ituneko 33.Bi artikuluan ezarritako Fabrikazio Zerga Bereziei buruzko lotunea kontuan hartuta, honako hau exijitu behar dela: Estatuko Administrazioaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean bana dadila abenduaren 28ko Zerga Berezien gaineko 1992/28 Legeak 38. a) artikuluan xedatzen duen bioerregaien salbuespenarekin bildutako zergaren kostua.

2) Itunaren arabera dela zergak sortzen diren lurralde bakoitzeko zerga gordailuetatik Zerga Bereziei buruzko Legeak 50. artikuluko 1.2.2 epigrafean sailkatutako 95 oktanoko berunik gabeko gasolinaren zergarekin ateratako bolumenaren arabera banatzeko irizpidea.

Ebazpen hau betez, AEATEk bidezko diren itzulketa uziak aurkeztu ahalko ditu.